BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4359

EBAZPENA, 2014ko irailaren 22koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, kultura sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzak emateko balorazio-batzordeetako kideak izendatzen dituena eta batzordeen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 23ko Agindua, hots, kultura sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Kontuan izanda 2014ko uztailaren 23eko Aginduaren 8. artikuluak xedatzen duela aipaturiko diru-laguntzak emateko modalitate bakoitzeko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horietako kideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko direla.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kultura sorkuntza bultzatzeko diru-laguntzak emateko balorazio-batzordeetako kideak izendatzea eta batzordeen osaera argitaratzea. Beraz, batzordeek honako kide hauek izango dituzte:

A) Antzerkirako testuak sortzeko laguntza-mota:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak:

– Maite Arrese Artabe anderea.

– Josu Camara Izaguirre jauna.

– Joanes Urkixo Beitia jauna.

Idazkaria: Jose Luis Ibarzabal Egibar jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

B) Gidoi zinematografikoak sortzeko laguntza-mota:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak:

– Ivan del Campo Uribarrena jauna.

– Begoña del Teso Feijoo anderea.

– Miguel Gomez Tejedor jauna.

– Alberto Arizkorreta Gurutzeaga jauna.

Idazkaria: Manuel Galarraga Izaguirre jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

C) Musika-konposizioak sortzeko laguntza-mota:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak:

– Maite Aurrekoetxea Viloria anderea.

– Margarita Lorenzo de Reizabal anderea.

– Jose Manuel Tife Iparragirre jauna.

– J. Vicent Egea Insa anderea.

Idazkaria: Imanol Arana Ariz jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 22a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.